



Martin  
Olazar  
Uribe

1927-2008

BIDeGILEAK

Egilea:

**Juan Manuel Etxebarria Ayesta**

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzogatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Mikel Azpeitia abadeari
- *Euskerazaleak Alkarteari*

---

Zuzendaritza: Jerardo Elortza  
Argitaraldia: 1.a, 2010eko abendua  
Ale-kopurua: 2.300  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Argazkilaria: Edorta Sanz  
Fotokonposizioa: EPS, S.L., Vitoria-Gasteiz • [www.eps-grupo.com](http://www.eps-grupo.com)  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz • [www.graficassantamaria.com](http://www.graficassantamaria.com)  
ISBN: 978-84-457-3098-0 (Lan osoarena)  
978-84-457-3099-7  
L.G.: VI - 540-2010



# MARTIN OLAZAR URIBE

(1927-2008)

## Haurtzaroa eta abadegaitza

### JAIOTERRIA

Martin Olazar Uribe Bizkaiko Gamiz herrian jaio zen, 1927ko azaroaren 17an, arratsaldeko 16:30ean. Gurasoak Julian Olazar eta Petra Uribe izan zituen. Aita, Arrietakoa eta ama Gamizkoa. Jaio, ama parteko Gamizko Uribarri baserrian egin zen eta bataiatu Gamizko Ander Deunaren elizan hurrengo egunean.

Martin-eta neba-arreba ugari izan ziren. Lehenengoa M<sup>a</sup> Angeles, zoritxarrez egun gutxi barru hil egin zitzaien.

Bigarrena Tiburzio. Hirugarrena Zelestino. Laugarrena Agustin. Bosgarrena Martin bera. Gero, ondo joanda, beste hiru ere izango ziren, baina azken hirurak galdu egin zituen Petrak. Beraz, Martin izan zen etxeko gazteena.

### HAURTZAROA

Martin jaio zen Uribarri baserria bizitza bikoa zen. Batean eurak bizi ziren amama Pilarren usufuktu edo gozamenari esker eta bestean euren osaba Biktoriano.



Gamizko parrokia

Martin, eskolara ere, Uribarri baserritik joaten zen, baina ez Gamizko eskolara, Fikakora baino, hurrago zegoelako euren baserritik. Beraz, Fikan hasi zen Martinen eskola ikasbidea.



Martin, bere lehenengo ikastetxe zaharrean

Baina, Martinen gurasoek, etxagunak, maiorazkoak, ez zirenez, zeukatenarekin burutu behar izan zuten. Horregatik, Martinen aita Ameriketara joan zen, Argentinara, eta behin itzuliz gero, inguruan salgai zegoen baserri bat erosi zuen emaztearen laguntzaz. Baserri honen izena Landako Etxebarri zen, baina *Montaño* izenez ezagutu da beti, aurretik han Santander aldeko batzuk bizi izan zirelako.

Martinek sei urte zituela, aldatu ziren Landakora eta horren ondorioz, Fikako eliza eta eskola utzi eta Gamizkora joaten hasi ziren. Landako baserria leku zoragarria da eta etxerik harako ikuspegia liluragarria.



Martinen jaiotetxea berriztatuta



Fikako parrokia

Martin zintzo-zintzo joaten zen goiz eta arratsalde kilometro bira zeukan Gamizko eskolara. Maisua euskalduna zen, Eskoriatzakoa, baina erdara hutsean irakasten zien. Arrastietan, eskolak bukatu eta gero elizara joaten ziren dotrina ikasten, gero jaunartzea egiteko.

Lehenengo jaunartzea 1935ean egin zuen Martinek, zortzi urte zituela. Txokolatada batekin ospatu zuten, garai latza bizi zutelako.

Gerotxoago sendotza edo konfirmazioa ere hartu zuen Martinek Mateo Múgica gotzain ospetsuaren eskutik.

## GERRATEA

Gudaldia oso tristea izan zen guztientzat eta batez ere Martin bezalako umeentzat. Egoera larria bizi izan zuten eta bel-durgarriena Gernikako bonbardaketa. Martinen etxekoek dena utzi eta alde egin behar izan zuten Landako baserritik beste leku seguruago batera.

Martin-eta lehenengo Fikara joan ziren eta handik, gauez, Zamudiora eraman zituzten kamioi batean. Hurrengo egunean Zamudiotik Bilbo ondoko Santo Domingora joan ziren eta han Agapitoren etxean hilabete bi eman zituzten egoera zailean.

Hilabete biok igaro ondoren, Begoñara pasatu ziren eta egun pare bat barru Bilbora, Erronda kalera, eta azkenik *Etxebarria* izenez ezagutzen zen tunelera, babes bila.

Nazionalak sartu eta Bilbo barruko guda bukatu zenean, etxerarako bidea hartu zuten, baina familia sakabanatuta zegoen. Gurasoak Zamudion zeuden, Tiburzio eta Zelestino, anaia zahar biak, Zallako Otxaranen kokatu ziren, baina azkenean

lortu zuten Landakon elkartzea. Gudaldia tristea izateaz gain, 1938an, Agustin, Martinen aurreko anaia, hil egin zitzaien istripuz. Denentzat, baina batez ere amarentzat beste zahar aldi bat.

## ABADEGAI BERGARAKO SEMINARIORA

Abadegai sartu orduko, Martin meza-laguntzailea zen eta bere amama eta amaren eraginez-edo, bazeukan eduki ere erlijio mundurako joera.

Egun batean, meza eraso eta gero, Martin Sagasti apaizak galdera hau egin zion meza ostean:

- Zu, Martin, abade izatea gustatuko litzaizuke?
- Bai.

Eta halaxe gertatu zen. Handik egun batzuetara Don Kristobal etorri zen Landakora eta, Martinen gurasoekin berba egin ondoren, dena antolatu zuten abadegai sartzeko, besteak beste, diru laguntzarena, seminarioko ikasketak ordaindu egin behar ziren-eta. Don Kristobal izan zen diru babeslea eta ondo bete zuen bere ardura.

Gamiz eta Fruizko abadeek elkar hartuta, eskatu autoa Frantzisko Bastarretxea abaneruari eta, Sebastian Rementería gidari zela, Bergarako Real Seminario ospetsua izandakora eraman zituzten gure Martin gaztea eta Fruizko Jose Antonio Lezamiz. Erdi negarrez geratu ziren biak Gabonak arteko egonaldi luzeak lausotuta.

Bergaran urte luze bi egin zituen Martinek. Gerra osteko garai gogorak ziren, gose urteak. Gosea zela eta, begietako arazoak ere izan zituen eta osagilearen aginduz, etxetik eraman behar izan zioten janaria. Horretarako ondo etorri zitzaion bere anaia Tiburzioren laguntza.

Tiburzio Eibarren zebilen arotz-lanetan eta sarritan joaten zitzaion janari pakete eta guzti.

Seminarioko bizitza gogor samarra zen. Irakasleak denetarikoak. Zuzendari espirituala onkotea. Ordutegia goiztiarra, goizeko seietan jagi behar izaten zutelako, jarraian meditazioa egiteko. Hori bai, kiroldegiak egokiak ziren eta adin horretarako garrantzitsua zen kirol mundu hori, «mens sana in corpore sano» lemari eusteko.

## GASTEIZKO SEMINARIORA

Bergarako kurtso biak amaitu ondoren, Gasteizko Seminario ederrean jarraitu zituen ikasketak Martinek.

Lehen parte honetan, besteak beste, latin, greko eta humanitate ikasketak burutu zituen eta jadanik letren mundua zientzietakoa baino errazago egiten zitzaion. Musika ere egunero ikasten zuten, apaizgai nagusien eskutik, eta tira, Martin ez zen musikalari handiegia baina, berak kontaktzen zuenez, ez zuten inoiz bota *Santa Tekla* gelara (*Santa Tekla*, belarri txar edo gogorrekoen gela zen, entonazioa ezina bazen, gutxienez, nota musikalak irakurri eta neurtzen ikasteko). Musika, pentsatzen den baino asignatura garrantzitsuagoa zen, behin abade eginez gero, kantuei tonu egokia eman

eta ondo abestea oso inportantea zelako. Alor honetan, abade askorentzat «trauma» izaten zen meza kantatua ematea, batez ere organoa bitarteko zenean.

Seminario txikiko ikasketak bukatuz gero, Filosofian sartu zen Martin. Garai garrantzitsua abadetza bidean. Giro berria, hezkuntza sakona eta heldutasuneko bidean sartu zen Olazar. Irakasle eragingarri asko eduki zituen, besteak beste, zuzendari espiritual bezala Maximo Gisasola (Ekua-dor aldean, Los Ríos-etako misiolari zela, hil zena), Urbano Gil filosofo sakona edo Jose M<sup>a</sup> Zirarda (gerora gotzain eta gehiago izango zena) eta batez ere Gregorio Rodriguez de Yurre, demokraziarako bide zabal-tzailea.



Martin,  
15 urteko  
ikaskideekin  
Gasteizko  
seminarioan



Martinen kurtsoakideen abadetzaiko orla

Filosofiako hiru kurtsoak burutu ondoren, 1947an, teologia ikasketak hasi zituen Martinek. Sasoirik helduena eta itxaropentsuena, irakasle eta orientatzaile berriekin. Garai honetan, espiritualitateaz gain, misiolari munduan ere bere hausnarketak egin zituen Martinek eta fedea bitarteko gogotsu heldu zen abade ordenatzera.

Martin prest zegoen abadetzarako, baina jaiokeratik zen euskalduna eta alor honetan ere egin zituen hausnarketak, bere kabuz, jakina, seminarioan tabuak zirelako herri-gintza, politika, euskara eta abarrak.

Alor garrantzitsu hau argitzeko, beste zer hoberik Martinen berbak erabiltzea baino.

*Zu, Martin!* bere liburu autobiografikoan hauxe diosku:

Errigintza edo politika itz zabala da eta esangura ezbaridiñakaz agertzen da sarritan. Atal onen aurrean, asieran, garbi itzi gura neuke zer ulertzen dodan itz artzen dodanean. Errigintza ez da norberaren erria maitatzea, ez da errien eskubideak zaintzea. Politika ez da besterik erria bere eskubideen jabe danean, zelan jaurri edo gobernatu bear dan ebaztea baño. Abertzale izatea ez da politika, ez da errigintza, guztion eginbear bat baiño: errigintzako alderdi guztiak maitatu bear dabe aberria, abertzaleak izan bear dabe. Gure erria zelan jaurri, gobernatu, bear dan diñogunean, orduan gagoz politikan sartuta: naiz araudiaren bidea, naiz España'gaz, naiz Frantzia'gaz, naiz askatasun osoa bide dala, ori politika da, errigintza da. Euskereari indarra emotea, emengo oiturak aurrera ateratea, emengo ekonomia indartzea, gure edestia azaltzea, gure lutelestia agertzea, ori ez da politika.



Martin, meza berrian F. Aurtenetxe aitabitxirekin

Dana dala, politikak eta erri-zaletasunak barru-min aundi bat sortzen dabe eta errez izaten dira eztabaidarako, gudarako eta asarretarako bidea.

Martinen kurtsokideak abadeberri egiteko zeudela, aldaketa berri bat gertatu zen Gasteizko seminarioan. Ordura arte elizbarruti bakarra zegoen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako, baina urte horretan hiru bihurtu ziren eta bakoitzak bere seminario nagusia antolatu zuen, Gasteizen, Donostian eta Bilbon, Derion hain zuzen ere.

Horregatik, Martin-eta Bizkaiko elizbarruti berriaren ardatzeko geratu ziren



Martin, meza berrian, sendikoekin

eta Gasteizen bukatu zituzten abade ikasketak. Baina ordenatzerakoan, eurak izan zitzaizkigun Bizkaiko elizbarrutian abadeberri egin ziren lehenengoak.

Diakonotza bera ere Begoñan hartu zuten eta 1951ko ekainaren 29an abadeberri egin ziren Casimiro Morcillo Bilboko gotzainaren eskutik.

Mungia inguruko hiru abadeberri ordenatu ziren batera: Martin Olazar, Gamizkoa; Patrizio Uriarte, Fikakoa; eta Jose Antonio Mallona, Fruizkoa.

Mezaberria ospatzeko, hiru domeka aukeratu zituzten: Martinek, uztailaren bata, Jose Antoniok uztailaren zortzia eta Patriziok uztailaren hamabosta. Esaerak dioen bezala, arrosak arantzak dituela baina bai lorea ere, horregatik egun pozgarriak bizi zituzten. Behin abade egin eta mezaberriak emanez gero, zain geratu ziren gotzainak nora bidaliko.



Martin, meza berriko egunean senideekin



# Abadegintza

Martin, lanbretan Ubiden

## UBIDERA

Martinen lehenengo destinoa Ubide izan zen, 1951ko uztailaren 24an. Ubiderako nahikoa zen zegoen abade bakarra, baina garai hartan beharrian berria sortu zen



Ubideko parrokia

herri hartako gizartean eta abade baten laguntza eskatu zuen bertako parrokoak.

*Bizkaiko Labe Garaiak* enpresa ur-jauziak egiten zebilen Zeanurin argi-indarra sortzeko Legutioko urekin. Lurpeko ubidea egiten ziharduten, 4,25eko zirkunferentzia eta 12 kilometro luzerakoa.



Zeanurin, Undurragako argindar zentrala

Lan erraldoi hori bitarteko, Ubide inguruan hiru edo lau mila behargin inguru bizi ziren barrakoietan, egoera larrian, janari eta garbitasun gutxirekin eta ia denak pilatuta. Langileon artean euskaldun gutxi zegoen, gehienak Galizia, Extremadura, Murtzia, Andaluzia eta Kataluniatik etorriak ziren. Hantxe hasi zuen Martinek bere ekintza pastoralala, Jakoba Ibargutxik ostatua emanda. Parrokia lanak ez eze, domeka guztietan meza bi ere esaten zituen beharginentzat, bata tunelaren laugarren zuloan, Arkestan, eta bestea bigarren zuloan, Zubizabal auzoan, Barazar gainetik Ubiderantz. Gutxi joaten ziren mezatara baina hantxe ibili zen Martin ahal zena egiten.



Martin, OSEPSAkoekin Ubiden

Egoera horretan Martin irakasle-lanetan ere ibili zen. Meza laguntzera edo elizara hurbiltzen ziren batzuei eskolak ematen hasi zen eta batzuk batxilerrera ere prestatu zituen, eta ondo atera. Hementxe hasi zen Martinen irakasle bokazioa.

Araba aldeko Elosu eta Legution ere jardun zuen laguntzen, nahiz eta negu partean gorriak pasatu elurra eta leiarekin.

## FRUIZERA

Ubiden hiru urte bete zituenean, parrokoak Fruizera joateko agindua hartu zuen. Ez zuen joan gura ezergatik ere. Martinek animatu egin zuen baina alpe-



Martin, Lehen Jaunartze batean

rrik. Orduan parrokoak bere ordeztz joateko esan zion Martini. Honek baietz, baina gotzainaren baietza behar zen horretarako. Egin zituzten gestioak eta gotzainak onartu egin zuen Martin Fruizera aldatzea.

Fruizera 1954an heldu zen eta, parrokia beharretatik aparte, abadetxe berria egin zuen. Abadetxearen azpian areto bat ere zabaldu zuen, pelikula, antzerki eta abarretarako. Bitarteka, Ubiden sortutako irakasle bokazioari jarraituz, eskolak ematen ere hasi zen eskatzen zionari, baina ikuskari batek galarazi egin zion.



Fruizko parroikia

Egun batean, Jokin Perea joan zitzaion eta Derioko seminarioan eskolak emateko eskatu. Eskatu eta egin. Hauexek ziren azaltzen zituen gaietariko batzuk: literatura, erlijioa eta matematikak lehen mailtan.

## MUNGIARA

Fruizetik Mungiara joateko agindua hartu zuen Martinek 1965ean. Mungian, parrokiatz gain, bertako San Pedro ikastetxeko ardura hartzeko agindu zion Gurpide gotzainak. Garai honetan Martin-eta euskararen aldeko bidegintzan, ikastetxe eta elizbarrutiko liturgian euska-



Mungiako parroikia

ra sartzen hasi ziren, nahiz eta beste batzuk berriztatze guztien aurka egon. Martin, abade, irakasle eta idazle legez, herriarekin konprometituta zegoen eta hainbat arazo izan zituen abadekide eta hierarkiaren aldetik. Eliz eta giza egoera larritzen hasia zen.

Euskara indartuz zihoan eta horren ondorioz, Mungian, *Larramendi* ikastola sortu zen gurasoen eskariz. Ikastetxe erregelatuetarako, besteak beste, titulazioak behar ziren eta Martin, hori jakinik, bere Erdal Filologiako ikasketak konbalidatu eta osatzen zebilen eta 1970ean bukatu zuen tesina eder bat bitarteko zela. Tesina gazteleraz egin behar izan zuen, baina gaia euskalduna

eta herrikoia, hauxe: «La fonética vasca en la zona de Mungia, Bermeo y Ondarroa». Deustuko Unibertsitatean defendatu zuen.

Euskaldunon egoera larri horren ondorioz, *Gogortasuna Alkartea* sortu zen eta Martin bidaiari ibili zen Nuntziaturara, Parisera eta Erromara.

*Gogortasuna Alkarteko* kideek, eliz hierarkiarengana hainbat eskabide helarazteko, ekintza batzuk eratu zituzten, baina irtenbiderik aurkitzen ez zuten, Derioko seminarioan itxialdi sonatu bat egin zuten hirurogei bat abadek 1968ko azaroaren 1ean.

Abadeok, Derion zeudela, *Gogor* izeneko disko batean euskal meza ere grabatu



Martin, *Larramendi* ikastolako sortzaile eta irakasleekin, Mungian



Derioko seminarioa

zuten, kantu herrikoi eta bertso batzuk bitarteko. Bertsoetariko batek honela dio:

Iñok nai ba'dau gu Deriora  
zertan gatozen aditu,  
agonian ta preso dagoen  
Erriak bialdu gaitu.  
Pazientzia agortu yaku  
ta ezin geiago sufritu.  
Guk ez genduan orren nabarmen  
iñora zertan mogitu,  
Eleizak gure deiak lenago  
entzun nai izan ba'litu.

Martin tarteko zen, baina Deriora barik Erromara bialdu zuten, Aita Santuari eskutitz bat eramaten. Oztopoa oztopoaren gainean, baina lortu zuen helburua.



Cogor diskoa

Egunotan Erroman zela, hil egin zen Gurgide gotzaina. Jose M<sup>a</sup> Zirarda izendatu zuten Apostolu Zaintzaile eta Deriokoekin berba egin ondoren bukatu zen itxialdia. Hortik aurrera gotzain euskaldunak izendatzen hasi ziren. Baina arazoak ez ziren konpontzen eta zenbait elizgizonek ekintza gogorragoetara jo zuten; batzuk sekulartu ere egin ziren. Martinek, ordea, ez zuen hartu bide hori eta handik pare bat urtera parrokiak aldatu zuten.

## ZEANURIRA

Martin 1970ean sartu zen Zeanurin koadjutore legez. Sasoi hartan Antonio Añoveros izendatu zuten gotzain Bilborako eta *Gogortasunako* talde batek elkartu eta Cádizera joatea erabaki zuen Añoverosi ez zedila etorri esatera. Martinen egin beharra euskararen arazoa azaltzea zen. Añoverosek ondo hartu zituen eta, azkenean, Bilbora etorri zenean, ondo ulertu zuen hemengo egoera eta, Jose Angel Ubieta bikario zela, eskertzeko lana egin zuen. Horregatik agintari zibilek biak kanporatu gura izan zituzten Bilbotik. Eta ia lortu zuten, une batean, frankismoaren hondarrean,



Zeanuriko parrokia

hartarako hegazkin bat prest egon baitzen Sondikako aireportuan.

Behin Zeanuriraz gero, parrokia lanetan ibili zen Martin eta abade arteko zein herriko hainbat arazori aurre egin behar izan zion.

Baina lehenago ere esan dugunez, Martin abadea ez eze, irakaslea ere bazen eta tituluduna. Zeanurin, Zulaibarren, Lanbide-Heziketako eskola zuten eta, zuzendaria espetxean zegoenez, Martinek hartu zuen haren ardura. Garai horretan doktoraduko kurtsoa ere egiten hasi zen. Berrito deitu zion Jokin Perek Derioko

seminarioan eskolak emateko Preu-koei. Urte bi aritu zen baina utzi egin zuen Zeanurin hobeto lan egiteko.

Handik laster, Iñaki Goikoetxea josulagunak esan zion Arabako Foru Aldundiak euskarazko katedra bat babesten zuela Irakasle Eskolan eta hura eskatzeko. Martinek, Deriokoa uztea eta Zeanurin zentratzeko argumentua sano baloratu ondoren, onartu egin zuen.

Eskola honetan arazo berri bat agertu zitzaion. Euskara, beti legez, bizkaieraz



Martin, Zeanuriko ikastegiko ospakizun batean



Bermeoko Santa Eufemia parrokia

azaltzen zuen eta bigarren urteko kurtso erdian, batuaz emateko agindua hartu zuen. Martinek orduan, ikasleak deslai ez lagatzearren, batuaz eman zituen eskolak eta kurtsoa amaitzean utzi egin zuen. Estudianteeek esaten omen zioten bizkaieraz hobeto ulertzen ziotela batuaz baino. Baina ez zuen jarraitu.

Zeanuriko herri, eliza eta eskolan murgildu zen eta bost urte bete zituenean, horixe baitzen izan ere bere jokabidea, zegoenean zegoela, herriari inkesta bat egin zion euren iritzia eskatuz. Zeanuriztarrek baietz borobila eman zioten eta han egon zen 1980ra arte. Hurrengo urtea sabbatikoa izan zen Martinentzat. Juan Maria Uriarte gotzainak gomendatuta, Gasteizko seminaria jo zuen erreziklaje kurtso bat egitera, parrokia aldaketa egin aurretik. Garai honetan, ama hil zitzaion. Martinek

bere abadetxera eraman zuen gaixorik zebilelako eta berak zaindu zuen ahal izan zuen bezala azken bost urteetan. Zenbat bider esan ote zion amak bere bihotz-bihotzetik: *Zu, Martin!*

## BERMEORA

Gorbeia ren magaletatik itsas ertzera, Bermeora joan zen gure Martin. Bermeo herri handia eta zabala izatera, sei parrokiatako herria da: Almike, San Pelaio, Mañu, San Frantzisko, Santa Maria eta Santa Eufemia. Martin, 1980an, Santa Eufemiako arduradun izendatu zuten gotzaindegitik.

Santa Eufemia zin-eliza da betidanik eta beste gauza interesgarri askoren artean ospakizun berezia egiten zen eta egiten da uztailaren 22an, Magdalena egunean, Izaro uhartearen aurrean teila bat botatzen

du uretara alkateak, «Bermeoko teilatua Izarorainokoa da» ozenki esanik.

Santa Eufemia eliza honetara etortzea salto handia izan zen Martinentzat, baina ez zegoen bakarrik. Ordurako, berarekin Mungian egondako abade lagun Balendin iritsita zegoen Bermeora eta horrek asko lagundu zion Martini, batez ere gazteekin jarduteko.

Lan asko egin zuen Martinek Bermeon, liturgian, katekesian, elizan zein eskoletan, *Caritas* arloan, herriko beste abade, lekaide eta lekaimeen artean eta nola ez arrantzaleen artean.

Hala eta guztiz ere, Martinek ezin utzi bere euskal irakasle bokazioa eta astia atera zuen euskara arloan aritzeko. Alde batetik, Bermeoko Udaleko itzultzaile

lanak egiten hasi zen, baina bigarren urtean, bizkaieraz izan arren, ortografia arautua onartzea erabaki zuen Udalak, eta Martinek utzi egin zuen beharleku hori. Beste alde batetik, *Bermeo* aldizkarian ere euskara bultzatzen ahalegindu zen. Horrezaz gain, euskarazko eskolak eman zituen Labayru Ikastegiak Bermeon zeukan egoitzan.

Zeanurin bezala, Bermeon ere iritzia eskatu zion herriari eta alde agertu zitzaion herria. Baina seigarren urtea bete zuenean, Juan Maria Uriarte gotzainak Mungiaara destinatu zuen, Mungiaz ez eze, inguruko herriez ere arduratzeko.

Bermeotarrak agurtu eta Mungiarako bidean, han Sollube gainean autoa geratu eta, Martinen bere hitzetan, hara zer egin zuen:



Martin, *Caritas* taldekoekin Bermeon



Izaro, Bermeo eta Mundaka aurreko uharte ospetsua

Bermeo'tik Sollube-gaiñera eldu nintzanean, beste aldetik Mungia agiri zala, berebilletik jatsi eta oiñetakoak kendu ondoren astindu egin nebazan, ebanjelioaren berbak gogoan nebazala. Ez asmo txarragaz, ezaugarri lez baño. Barrero berebillera sartu eta Mungia'ra abiatu nintzan neure buruari abesti baten bidez dei egiten neutsala: «Eleizara sartu eta Jaungoikoaren berbea entzun alkarregaz». Gure abesti zarra abesten jatsi neban Sollube:

«Erdu pakataria erdu eleizara Jaungoikoren berbea gogoz entzutera».

## MUNGIARA BERRIRO

Mungiara destinatu arren, oraingo Mungia eta lehenengo aldikoa ez ziren berdinak. Oraingoan inguruko herrien kargua ere hartu zuen Martinek apaiz-taldeko arduradun bezala.

Mungiaz gain, Laukariz, Arrieta, Fruiz eta geroago Gamiz eta Fika ere bere zuzendaritzapean egon ziren. Antolatzaile lan handia egin zuen, abade jubilatu eta



Laukarizko eliza



Arrietako parrokia



Martin, Mungiako parrokiako elizpean

gazteekin batera, abadetxeak egokitzen eta komeni ziren ekintzak bideratzen.

Gerora, Elizbarrutiko Abade Kontseiluko kide ere izan genuen Martin, euskararen arloari utzi barik. Adibide bat ipintze-arren, 2000n liburu bat ere idatzi zuen *Mungia ta mungiarrak/Mungia, su tierra y sus hombres* izenburupean.

Orain artekoan, Martinen lanak eta hainbat parrokiatatik izandako beharlekuak

aipatu dira, baina Martin ez zen izan geldi egotekoa bere bizitzako abadegintzan eta, besteak beste, bidaiaria ere izan zen, bakarrik zein lagunekin.

Euskal Herriko bazterrak eta mendiak ondo ezagutzen zituen. Penintsulan ere hainbat lurraldetatik ibilitakoa zen. Baina Martinen esanetatik, ahaztu ezineko bidaia luze gogoangarrienak bi hauek izan ziren: bata, Erroma, Amann, Jerusalem, Egipto, Atenas, Madril; eta bestea, Madril, Panama, Venezuela, Madril.



Martin, Mungiako abadetxe berriaren aurrean



# Idazle eta euskaragile

Mungia buruzko liburua

## IDAZLANAK

Martinek idazteko zaletasuna, gehiago edo gutxiago, beti izan zuen bizitzan zehar eta bere lan guztiak bilatzea ez da erraza. Berari esker dakigu zer idatzi zuen, baina zerrenda horretan ere ez da dena agertzen; esaterako, 1982tik hasita eguneroko orritxoak duen egutegian gauzatutako talde-lana, edo irrati bidez egindakoa edo sermoietakoa, eta abar luze bat.

Martinek, bere *Mungia ta mungiarra*/ *Mungia, su tierra y sus hombres* liburuaren azkenean (111. orrialdean), bere idazlanen berri ematen du «Idazlearen idaz-lanak»

izenburupean eta berak idatzi zituen beza-la aipatuko dira.

### Liburuak:

- 1-. *Mungialde, Bermeo, ta Ondarruko euskal abostegia/La fonética vasca en la zona de Mungia, Bermeo y Ondarroa* (argitaratu barik).
- 2-. *Len, orain eta beti* (elebarria, argitaratu barik).
- 3-. *Iruarrizaga'tar Luis aitaren bizitza/ Vida del músico P. Luis Iruarrizaga.*
- 4-. *Nazaret'eko Jesus.*
- 5-. *Erri bat bidean.*
- 6-. *Gu, gure mundua ta gure fedea.*

- 7- *Zu, Martin!/Oye, Martín* (Gomutakiak) (1999).
- 8- *Mungia ta mungiarrak/Mungia, su tierra y sus hombres* (2000).
- 9- *Gamiz: Neure erriaren edesti laburra/Gamiz: Breve historia de mi pueblo* (2004).
- 10- *Fruniztarrak len ta orain/Fruniz, su tierra y sus hombres* (2006).
- 11- *Atela anai biak/Los hermanos Atela* (2008).
- 12- *Egutegia* (bizkaieraz) [bateratzaile lana].

### Itzulpenak:

Bermeo ta Zeanuriko udal-etxeetan.  
Bilbo'ko Gotzaindegian 1985-1995.

### Idaz-lanak aldizkarietan:

*Pensamiento Alavés, Deia, Possumus, Yunque, Pancarta, Eco Misional, Surge, Alkartasuna, Concordia, Goiz-Argi, Agur, Zer* (zuzendaria izan zen sorreratik), *Kardaberaz, Bermeo, Aran* (Arratia), *Saski-Naski, Euskerazaintza*.


Izenordea, sarritan «Gamiz» izaten da. Inoiz «Landabarri» be bai. Atarikoak izenpetu barik.



Atela anaia bie buruzko liburua



Fruizi buruzko liburua



Gamizi buruzko liburua



Egutegia bizkaieraz (tako moldean)

## EUSKERAZAINTZA

Jakina denez, 1968an, Euskaltzaindiak Arantzazun egin zuen kongresuan erabaki zen euskara batuari hasiera ematea. Horrelako erabaki batek arazoak sortuko zituen argi zegoen eta hala gertatu zen, batez ere bizkaieraren eremuan.

Handik hamar urtera, 1978an, beste kongresu bat ospatu zuen Euskal Akademiak Bergaran, tarte horretan egindakoa aztertzeko.

*Kardaberaz'tarrak* joan ziren Arantzazu eta Bergarako batzar horietara eta, hango joera ikusi ondoren, hauxe adierazi

zuten: «Euskaltzaindia Euskera Batuaren bidetik ba' doa, guk, euskera batu orren aurka gagozenok Erri Euskerarentzat beste akademia bat sortuko dogu».

Eta halaxe egin zuten. Euskerazaintza 1978an sortu zen Durangon. Elkarte Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan hedatu zen. Bere helburu nagusia euskalkiak (*erri-euskerak* deitzen dituenak) lantzea eta sendotzea.

Euskerazaintzaren lehen presidentea Lino Akesolo izan zen eta zuzendaria Augustin Zubikarai.


Aita Lino Akesolo zendu zenean Martin Olazar aukeratu zuten lehendakari 1991n, eta urte birik urte bira, hauteskundeak bitarteko, Martin izan zen hil arte Euskerazaintzako lehendakaria.



Martin, J. A. Ardanza lehendakariarekin, Ajuriaenean

## EUSKERAZAINTZAKO IDAZTI LANAK

Hona hemen Martinen beraren hitzetan Euskerazaintza lehendakaritzatik idatzitako idazki argigarri hau:



Euskerazaintza aldizkaria

### «Euskerazaintza aldizkariak lan sakonak eta luzeak»

Beste leku baten esan dogu non, zelan eta zergaitik sortu zan Euskerazaintza Euskerearen Erri-Akademia, Kardaberaz Bazkunaren ondoren lez.

Orain Akademi onek argitaratzen dauan eta izen bardiña daroan *Euskerazaintza* aldizkaria aurkeztu gura dogu.

Urtean lau bider-inguru argitaratzen dogu, naizta sarritan ekonomi-arazoakaitik lau baiño gitxiago izan, 60'tik 100 orrialdera izaten dauz.


Ez da Euskerazaleak Alkartek argitaratzen dauan *Zer*'en maillakoa. *Zer* erri zearentzat asmatua da eta gai lauak artzen dauz, errez irakurteari begiratuta, *Euskerazaintza*'k, ostera, gai sakonagoak, zabalagoak eta luzeagoak artzen dauz.

Aldizkari onen gaiak, al dala, euskerea «garbitzeko, sendotzeko eta argitzeko» izaten dira eta bide orretatik eltzen gara elertiaren edestiaren bidera, baiña Euskal-erriaren edertia eta beste euskalgai batzuk be artzen dauz.

*Zer* geienbat Bizkaí'rako eta bizkaieraz izaten da, *Euskerazaintza*, ostera, gehiago zabaltzen da Gipuzkoa'ra eta beste lurralde batzutara.

Akademiak illero egiten dau batzarra eta antxe banatzen dira gure lanak eta zeregiñak, aldizkari au argitaratzea be bai [...].

[...] Bai *Zer* eta bai *Euskerazaintza* liburututa daukaguz eta Euskerazaleak Alkartearen etxean ikusi daitekez. Antxe dago, baita, lenagokoa dan gure *Agur*



Zer aldizkaria

aldizkaria be liburututa. Dana ikusi daikezue Bilbao'n, Colon de Larreategi kaleko 14n. atean, 2n. etxe-maillan, eskuma aldean.

Beioa gure agur beroa gure web orri onetara datozen ikertzaille guztiai.

Olazar'tar Martin,  
*Euskerazaintza* ren Lendakariak

## BIZKAIERA BIHOTZ-BIHOTZEAN


Euskaltzaindiak 1968an hasi eta bideratutako Euskara Batua hemen dabil euskaldunon artean euskalkietako herri-euskarekin batera.

Euskara batuaren sorrera baino lehengokoak garenok, jaiotzen eta hazten ikusi dugu landare berri hori eta etorkizunak agertuko digu elurra mendian.

*Bidegileak* bildumako liburutxo hau Martin Olazar gizon eta abadeari begira eginda dagoenez, argi geratu da zein zen Martinen iritzia, bizkaierarik hara euskara zaindu eta bultzatzea. Baina, Martin, ezer izan bazen, benetako euskaldun gizon eta abade izan zen, euskaldun-fededun lemapean.

Euskara denona da, denok etxeko garelarik, eta Martin bezala beste euskaldun ospetsu asko egon da eta egon ere badago, euskaldun izanaz euskara bultzatzen, Euskara Batuaren norabidetik izan ez arren.

Hizkuntza, bizitzaren ispilu dela esaten da eta bide horretatik euskara tokian tokiko euskaldunona. Martinek ere bere bizitza kontatzerakoan, hiru lekutan jarri digu bere ispilua azterketa bidean. Baina, hiru ispilu isladak, Martinek berak azalduko dizkigu bere hitzekin *Zu, Martin!* liburuan:



Bere bizitzari buruzko liburua

Azkenengo atalera eldu gara eta atal au ez da izango jazokizunak, batzuk barregarriak beste batzuk samintasunez beteak, gogoratzeko. Ez. Azkenengo onetan iru lekutara begiratu nai dot, azterketa bat egiteko: Mundura, Euskalerrira eta neure bizitzara.


Irurogeta amaika urte igaro dira Gamiz'ko Uribarri baserrian Julian'ek eta Petra'k euren azkenengo umea ikusi ebela, or-

dutik ona bira asko egin dauz eguzkiak eta euri asko jausi da lurrera, munduak aurrera egin dau, jaio-barri zan ume arek egin dautson ikututxua somatu ondoren, baiña zartzarora eldu dan ume ori laster ba'doa eta, ez ikaratu, eguzkiak bardin jarraituko dau argi egiten, goizean urten eta arratsaldean sartu.

Irurogeita amaika urte oneitan aldakuntza, aurrerapen, aundiak izan dira munduan: Egazkiñak ariñago, trenak azkarrago, urrutizkiña eskurago, telebistak non-nai... gure mundu oneri baserri batua esaten dautsoe gaur jakitunak [...].

[...] Aurrerapen eder eta arrigarri onetan niri urte oneitan bizi izatea egokidan, aurrerapen ori bultzatzea zan nire egitekoa. Txarto edo ondo or dago nik egiña. Gero zer dago? Mundu barria, Jerusalem barria. Jaunagan bizi izango gara. Jaunagan izango da mundu barria.

Baina ez gara bakarrik bizi izan mundu onetan, Uribarri'ko ezkenengo umea euskalduna izan da eta Euskalerrian izan dau bere lekua, erri au fededun, kristiñau, izan dan aldi onetan. Erri askea ei zan asieran, gero lege-zarrak galdu barik beste erri bateri lotua, gero askatasunaren billa guda



galdu eta erri zapaldua, oraintsu araudi baten bidez erdi askatasun baten... Baiña zer dator orain? Nora doa Euskalerria? Itxaropena dago! Askatasun osora. Lagunduko al dau orretarako gizakiak osotzen daberen Eleizeak? Ai! Orrelan ba'litiz! Baiña bideak ez doaz orrantza.

Biurtu gaitezana Uribarriko umeagana! Irurogeita amaika urte bete ondoren, laguntzaille ona izan dodan nire gorputza makalago aurkitzen da, osagaiakaitik ez ba'litiz, gorputzmin aundietan ikusiko neuke neure burua. Baiña goazen aurrera, osagilleak lagun, al dogun artean.

Eta ordua datorrenean, ezin izan daiteke urte askotarako epea, etorri nintzan antzerara, mugara eltzen nazenean, bakarrik eta isillik, Aita onagana urreratuko naz eta bere etxean artuko nau. Dana geratzen da bere eskuetan. Ordu ori eldu artean, emen al dodana egiten, beti lez...

Eta halaxe izan zen. Gaixorik, baina ahal zuena eginez, eman zituen bere bizitzako azken urteak gure Martin bizkaitar bidegileak.

## ARGITARATU GABEKO LANAK

Hainbat lan utzi digu Martinek argitaratu gabe baina lanok ez dira galdu, *Euskerazaleak Alkarteak*, Bilboko bere egoitzan dauzka gordeta noiz argitaratuko zain.

Martin Olazar abade euskaltzalea merezi duen mailan jartzen saiatu naiz, koplaren honetan diodana betetzen ahalegindu zelako bere bizitzan. Hona hemen:

Itsasoan handi ura  
basoan ugari zura,  
euskaldun izan, euskaraz bizi  
zainduaz euskal kultura.

# BIDOGULLEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco